

**Jaialdia
FANTASIAZKO ETA
BELDURREZKO
ZINEMAREN ASTEA**



DK

**memoria
2019**



2019ko kartela - Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren astea

2019an, Asteak urteurren biribila ospatu zuen. Hogeita hamar edizio egin ditu zinemaldi honek, bada zerbaitea dagoeneko ondo errotuta dago Espainian eta nazioartean, paregabeko nortasuna du, josteta eta errigorea konbinatzen baititu film eta jardueren programazioan.

Urteurrena ospatzeko, herritarrei oro har zuzenduriko jarduera gehiago izan ziren, hala nola kale-ikuskizuna, eta erakusketa gehiago, batzuk Donostia Kulturak produzituak, hala nola **30argazki30** eta **Paul Naschy**ri eskainitakoa, oihartzun handia izan zuena.

Sail ofizialean, gertaera historikoa jazo zen, euskal produkzioiek ireki

eta itxi baitzuten, **El hoyok** eta **Ventajas de viajar en trenek**, hurrenez hurren, urteak fantasiaren arloan emandako ale interesgarrienetako bi. Sortzaile eta zinegileen mugarri bat, zeinak hein batean hau bezalako zinemaldi bati esker hezi baitziren.

Folklore beldurgarria izan zen edizio honetako atzera begirako historikoaren *leitmotiva*, eta *Hermeneute* argitaletxearekin batera kaleratutako liburu folk-horroreari buruzko batek osatu zuen, zeina erreferentzia bilakatuko baita ezberrik gabe.

Beñat Oleak, Roland Topor-ek eta Giger-en omenezko erakusketa kolektibo batek osatu zuten erakusketa artistikoen sorta Donostiako zenbait lekutan.

Errealitate birtualaren saila izan zen berriz ere adin guztietako jendearentzako erakarpen-gunea.

Astearen aurreko hilabeteetan, proiektio bereziak eman ziren: **Napardeath** euskal filmaren estreinaldia eta Zine Akademiarekiko lankidetzak **Superlópez** filmean.

Ibiltarien sailean, Beñat Olearen erakusketa Irungo CBA-n ikusi ahal izan zen, eta Oihartzunen eta Hondarribian 2019ko film labur onenen proiektio bana egin ziren.

Gainera, **Fant Bilbao** zinemaldiak, 25. urteurrenean, Astearen laguntza izan zuen **Mil gritos en la noche**ko argazkiak eta **Mary Shelley: la muerte del munstro** komikiaren originalak erakusteko.

Azkenik, aipatzekoa da beste erakunde batzuekin batera (Larrotxene, Film Comission Gipuzkoa eta Gaztea) **sorkuntzari laguntzeko** egindako ekinbidea, **Oihua!** lizenkoa, euskarazko beldurrezko film labur baten errodajea bultzatzeko.



The Dance of the Dead, kale antzerkia

